

**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

**2010eko APIRILAREN 15ean LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN  
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2010eko apirilaren 15ean, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 18.30 orduetan, Xabier Mujika alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez  
Karlos Irazu Muñoa  
Gotzon Jauregi Sarasola

Bere ezin etorria azaltzen du: Igor Barandiaran Perez de Arriluzea


DAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. Ondoren adierazten den Udalbatzarreko akta onestu, hala badagokio:
  - 2010eko martxoaren 18an egindako ohiko bilkura.
  - 2010eko martxoaren 22an egindako ez-ohiko bilkura.
2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.
3. 2010 urterako langileen egutegiak onartzea, hala badagokio.
4. 2009ko aurrekontuaren likidazioaren berri ematea, hala bada.
5. Euskal Autonomia erkidegoko tokiko iraunkortasunerako konpromisoari adierazitako atxikimendua; Udalsarea 21 iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarea finkatzea, hala bada.
6. Adunako Udalak, Alkizako Udalak, Larraulgo Udalak, Asteasuko Udalak, Villabonako Udalak, Zizurkilgo Udalak eta Aiztondo Klasiko batzordearen arteko hitzarmenaren onspena, Aiztondo eskualdean afizionatu mailako goi mailako txirrindularitza proba elkar lanean antolatzeke, hala bada.
7. Fakturak eta ordainketak.
8. Beste batzuk.
9. Erregu, galderak eta mozioak.

.../...



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### **LEHENENGO PUNTUA**

#### **ONDOREN AIPATZEN DIREN UDALBATZAREN AKTAK ONESTU, HALA BADAGAKIO.**

- ▣ 2010 urteko martxoaren 18ko Ohiko Udalbatzaren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.
- ▣ 2010 urteko martxoaren 22ko Ez-Ohiko Udalbatzaren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

### **BIGARREN PUNTUA**

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

07/2010 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 26koa, Jose Agustin Galarraga Trecu jaunari, Goieneta Goiena baserrian dauden ur sarrerak saihesteko, baserriaren albo bateko lurren egokitzapen lanak egiteko obra baimena ematea, ebazten duena.

08/2010 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 31koa, 2009 urteko aurrekontuaren likidazioa onartzea, ebazten duena.

09/2010 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 30koa, Jose Agustin Galarraga Trecu jaunari, Goieneta Goiena baserriaren albo batean portxe ireki bat egiteko obra baimena ematea, ebazten duena.


10/2010 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 9koa, Jose Agustin Galarraga Trecu jaunari, Goieneta Goiena baserriaren atzealdean dagoen eranskinetako teilatua eraberritzeko obra baimena ematea, ebazten duena.

11/2010 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 13koa, Rafael Aramburu Ezeiza jaunak, Larraulgo Utseta inguruan gauzatzen ari den lurzoruen itxitura lanak etetea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

### **HIRUGARREN PUNTUA**

#### **2010 URTERAKO LANGILEEN EGUTEGIAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Idazkari-Kontuhartzaile andreak Larraulgo udal langileen 2010 ekitaldirako egutegiak aurkeztu ditu.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: 2010 urterako Udal langileek aurkezturiko egutegiak onartzea.

### LAUGARREN PUNTUA

### **2009 KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA, HALA BADA**

Idazkari-kontuhartzaileak 2010/08 Alkate Dekretuaren berri ematen du, non 2009 ekitaldiko udal aurrekontuaren likidazioa onesten den. Batzarkideak jakinaren gainean gelditzen direlarik.


### **2010/08 ALKATE DEKRETUA**

Udal honen 2009ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

### **EBATZI DUT**

**Lehen.**- Udal honen 2009ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:


1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2009-12-31n:	118.231,33
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2009-12-31n:	75.391,51
Aurrekontuko zordunak :	73.537,91
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	1.853,60
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2009-12-31n:		115.361,30
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	101.802,00	
Sarrereren aurrekontuko hartzekodunak:	0,00	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	13.559,30	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2+3):		78.261,54
5.- Saldo kobragaitzak:		167,86
6.- Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5):		78.093,68
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:		0,00
8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7):		78.093,68
9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:		-19.037,37
10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:		0,00
11.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:		11.836,24
12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:		0,00
13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12):		-7.201,13
14.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:		0,00
15.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:		0,00
16.- Kreditu gerakinak, guztira (14+15):		0,00



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**Bigarrena.-** Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipaturiko Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

**Hirugarrena.-** Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

### **BOSTGARREN PUNTUA**

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO TOKIKO IRAUNKORTASUNERAKO KONPROMISOARI ADIERAZITAKO ATXIKIMENDUA; UDALSAREA 21 IRAUNKORTASUNERAKO EUSKAL UDALERRIEN SAREA FINKATZEA, HALA BADA**

Bertaratuek aho batez onesten dute puntua mahai gainean uztea, gaia hobeto aztertu arte.

### **SEIGARREN PUNTUA**

**ADUNAKO UDALAK, ALKIZAKO UDALAK, LARRAULGO UDALAK, ASTEASUKO UDALAK, VILLABONAKO UDALAK, ZIZURKILGO UDALAK ETA AIZTONDO KLASIKO BATZORDEAREN ARTEKO HITZARMENAREN ONESPENA, AIZTONDO ESKUALDEAN AFIZIONATU MAILAKO GOI MAILAKO TXIRRINDULARITZA PROBA ELKAR LANEAN ANTOLATZEKO, HALA BADA**

Ikusirik Aiztondo Klasiko batzordean igorritako hitzarmenaren zirriborroa, Adunako Udalak, Alkizako Udalak, Larraulgo Udalak, Asteasukoko Udalak, Villabonako Udalak eta Zizurkilgo Udalak onartu dezaten, non Aiztondo Eskualdean afizionatu mailako goi mailako txirrindularitza proba elkar lanean antolatzea arautzen den.

Ikusirik aipaturiko hitzarmena sei urteetarako iraupena izango duela.


Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Adunako Udalak, Alkizako Udalak, Larraulgo Udalak, Asteasukoko Udalak, Villabonako Udalak, Zizurkilgo Udalak eta Aiztondo Klasiko batzordearen arteko hitzarmena onestea, non Aiztondo eskualdean afizionatu mailako goi mailako txirrindularitza proba elkar lanean antolatuko den.

BIGARRENA: Xabier Mujika Pagola Alkate-Lehendakariari, ahalmena ematea aipaturiko hitzarmena sinatu dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Aiztondo Klasika batzordeari ematea.



**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

**ZAZPIGARREN PUNTUA**  
**FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

UROLA	63,46
BERRI LANTEGIA, S.L.	73,88
EDUARDO AIZPURUA IMAZ	18,66
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	46,40
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	32,48
ZELAI	359,14
ZITU	69,95
KIROLZER	98,40
IZFE	1.796,90
MEGA	25,14
LASURTEGUI ATXEKI, S.L.	17,40
COMUNIDAD URBELTZ AUZOA	31,65
EUSKAL HARRIA	522,00
GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	7.368,97
IBERDROLA	147,06
REPSOLGAS	812,64
DISTRIBUCIONES LOPETEGI,S.L.	129,99

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengoa,

**ERABAKITZEN DU**


BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **11.614,12** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

**ZORTZIGARREN PUNTUA**  
**BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten.

**HAMABOSTGARREN PUNTUA**  
**ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.



**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

*Beste gairik ez dagoenez, gaueko 20.00 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA